

Nevasport.com 'go forotan parte hartzeko arautegia

Ongi etorri Nevasport.com'ek dituen foroetara, hots, [Lur gainean](#) elur komunitaterik handienetako batera. Egiaztatu ahal izango duzunez, gure foroak publikoak dira, eta haietan idazteko izena ematea ez da beharrezkorik, egun topagaitza dena. Komunitate publiko eta irekia mantentzea da gure asmoa.

Baina, gure elkarbizitza errazteko, oinarrizko portaera arau batzu behar direla ulertu behar dugu elkarrekin bizi izateko. Arau hauek gutxi batzu dira eta nahiko errezak. Hala ere, jakin ditzazun, zerrendatuko dizkizugu:

- **Besteekiko begirunea:** Azalpen handirik behar ez duen arau ulerterraza da hau.
- **Moderatzaileekiko begirunea:** Foroen bilakaera onaren arduradunak dira moderatzaileak. Beraz, haien adierazpen eta azalpenak jarraitu behar ditugu. Moderatzaileak gure esanetara daude edozein zalantza, kontsulta edo gertaerarako.
- **Elurra eta mendiari buruz egin dezagun:** Nevasport'eko foroetan gai zehatz bati buruz aritzen da. Elurra eta mendiari buruzko gaiak jorratu behar ditugu harrezkero.
- **Iragarki pertsonalak edota komertzialak ez dira onartzen:** Foroak badu interes publikoa eta iragarkiz librea nahi dugu izatea. Gure web-orrian iragarkiren bat jartzeko interesaturik egotekotan, gure [publizitate](#) edo [klasifikatuen](#) ataletara jo. Horietan iragarkiak dohan argitaratzeko aukera dago.
- **Bidai agentzien eskaintzarik ez:** Bidai agentziek [atal berezia](#) daukate haien eskeintzak argitaratzeko, beraz, ez da foroetan horrelako argitalpenik onartuko.
- **Gai bakoitza bere foroan:** Zure gaiak fororik egokienean idazten saia zaitez. Adibidez, materialari buruzko zerbait idazteketan, materialeko foroan egin. Horrela, mezuak hobeto kudeatzen ditugu eta are gehiago, zure zalantzak edota galderak hobeto erantzun ahal izango dira. Akatsez edo ezjakintasunez gai bat behar ez den foro batean jarri ezkerro, moderatzaileak, fororik egokienera mugituko dizute.

Arau berria (Nevasporteko Dekretua 01/2008.ko Apirilaren 22koa): Erabiltzaileren batek [foro orokorrean](#) zehatzki zonakako foroetako den gai bati buruzko mezua idatziko balu, mezu hori, dagokion forora mugitua izan ahal izango litzateke. Horretarako, **mezu horrek 48 orduan aktibitaterik gabe (erantzunik gabe) egon beharko luke**. 48 ordu hauek ez balira igaroak izango, mezuaren sortzaileak, moderatzaile bati hala eskaturik baino ez litzateke mugituko.

- **Gai berri bat zabaldu aurretik:** Gure foroan [Bilaketarako motorra](#) daukagu. Erabil ezazu gai berri bat zabaldu aurretik. Seguraski antzekorik edo berdina eztabaidatu da inoiz gure forotan.
- **Helduberria bazara, aurkeztu zure burua:** Heldu berria bazara, beteranoak poltsikoan sartzen saia zaitez. Horretarako, nor zaren eta zer bilatzen duzun azalduta, eta zure mezuan ahalik eta xehetasun gehien emanda, zure mezuak erantzun hobeagoak eukitzeko aukera gehiago izango duzu.
- **LETRA LARRIAK (MAIUSKULAK) = OIHU EGITEA:** Foroetako mundu berri honetan, letra larriak erabiltzea OIHU EGITEA bezalakoa da. Horrela idatzitako mezuak saihestu.
- **Datu pertsonalak:** Beste pertson baten datu pertsonalak ezin izango dira aireratu forotan. Horretarako foroetan dagoen mezu pribatuen aukera erabili beharko da. Foro bat, leku irekia eta publikoa izanda, jende asko sartu eta mezuak irakurtzeko aukera dago (imajina dezakezuna baino

askoz ere jende gehiago), beraz, pribatutasun apur bat mantendu, eta zure datu pertsonalak, adibidez, telefono zenbakia, izen abizenak, kontu korronteko datuk etab., ez argitaratu.

- **Elkarrizketak errespetatu:** Elkarrizketa baten erdian gaiak ez aldatzen saia zaituz. Gai berria, mezu berria.
- **Gaiak /erantzunak ezabatzeko debekua (moderatzaileentzat):** Guztiz galarazita dago mezu bat ezabatzea Nevasport.com'peko edozein forotik. Moderatzeko aukera bakarra "gai bat edo erantzun bat ezkatatzekoa" da. Horrela, mezua beti ahal izango da **birargitaratu** eta moderatzeko ekintza **atzeragarria** izango da.
- **Sinaduren erabilerari buruz:** Sinaduretan jartzeko irudiek **txikiak izan beharko dute** (10-15 KB baino txikiagoak) zerbitzariaren gainkarga ekiditzeko, web-orri honetako kudeatzaileentzat gastu ekonomikoa ekartzen duena. Aldi berean **animazio arinegiak** edota errepikagarriak saihestuko ditugu. Sinadurak, ezin izango dira **foroetako gaietatik at egon**. Horrela gaizkiulertzerik ez da gertatuko. Sinadurak ez dira gure foroetako eztabaidagai. Zure sinadura era diskretu eta sinplea erabil ezazu eta gogoan izan **foro batean garrantzitsuenak hitzak direla**.
- **Zonaldeko foroetako gaia:** Alderdi geografikoari atxikitutako foroak, haietan eztabaidatzeko gaiekin eskuzabalagoak izango dira eta bertako komunitateak egokiak jotzen dituen eztabaidagaiak jorratuko ditu, hala nola, udarako ekimenak, txango eta irteerak, eta abar. Ez elurrarekin, ezta alderdi geografikoarekin lotuta ez dagoen edozer "gaiz kanpo" tzat hartuta izango da.

Elkarbizitza erraztuko digun arau sorta bat da hau. Zalantzarik izatekotan [jar zaituz gurekin harremanetan](#), laguntza eskeinito dizugu eta iradokizunik bota ezker, kontutan hartuko dugu. Erabiltzailearen batek arau hauek kontutan izango ez balitu, bai Nevasportek, bai haren moderatzaile taldeak erabiltzaile horren kontua ezabatzeko eskubidea edukiko lukete. Hortaz, inolako oharrik gabe, komunitatean esku hartzeko aukerarik gabe geratuko litzateke erabiltzailea.

Agur bero bat eta aztarna ederrak utzi elurretan!!!

Pepe Peinado

www.nevasport.com